

SUPSI

Il rumore lontano

Euskararen bertsioa

Lehenbiziko geltokia: Bidai txartela

VETTURA NUMERO 1		Data	Meteo		
orari partenza	salita o discesa ↙↘	persone con arcobaleno	cassiere conta gli abbonamenti arcobaleno (mettere crocetta)	osservazioni	
8.00					
8.15					
8.30					
8.45					
9.00					
9.15	↗	2			
9.30					
9.45					
10.00					
10.15					
10.30					

"Urrundik datorren oihartzunak beti umeltzen du belarria. Entzumena lanbrotzen duen soinuak beti zorrozten du haren gosea, jakinmina... belarri-mina. Seguruaski, goiz edo berandu musikari orok aurrez aurre topatzen duen arazoa da. Iristen da momentu bat, zeinean hurbileko soinuak garden bihurtzen diren, argiegi, ageriegi, itsugarri. Momentu horretan, definitu gabeko soinuek seduzitzeko gaitasun berezia erakusten dute, beren erotismoa, beren artea agerian utziz. Musikariak inoiz entzun ez duen eta nekez harrapatuko duen edertasun bereziz janzten dira. Eta orduan, urrundik mintzatzen zaigun hori bertakoa baino hurbilagoa dela iruditzen zaigu. Urrundik laztantzen gaitu, azala ukitzeko beharrik gabe."

Il rumore lontano, Xabier Erkizia, 2017

Bigarren geltokia: Egitasmoa



1898ko otsailaren 20an, suitzako biztanlegoak, aldeko 386'634 boturekin eta 182'718 kontrako boturekin, «Legge federale sull'acquisto e la gestione di ferrovie per conto della Confederazione e l'organizzazione amministrativa delle Ferrovie Federali Svizzere» onartu zuen. 1901eko urte zahar gabeen, goizeko 2etan Bernako geltokian ospatu zuten Zurich–Aarau–Olten ibilbidea osatu zuen lehenbiziko trenaren iritsiera. Iraultza honi beste bat gehitu zitzaion laister. 1914ean Richard Trevithick izeneko ingeniari ingelesak lokomotoraren lehenbiziko prototipoa aurkeztu zuen jendaurrean. Egun hartatik, trena bizi-bizi zabaldu da mundu osoan zehar, historiako lehenbiziko masa-garraioidea bihurtuz. Aldiberean 19. mendeko nazioen industriaren garapenean inflexio puntu bat ezarri zuen trenak, eitura politiko, ekonomiko nahiz sozialean garrantzi handia hartuz. Esan liteke, lokomotoraren asmakizunak gizadiaren historian aro berri bat asmatu zuela, bidaiari eta merkantzien garraioa erraztuz eta betirako espazioaren nahiz denboraren pertzeptzioak betirako aldatuz. Trenaren ondotik, bestelakoa bihurtu zen mundua.

Mende pare batean, lokomotora eta orokorrean trena, eta trenak berekin dakarren lotura oro (bidaia, txistua, zarata...) iruditeri kolektiboaren parte bihurtu da, bere aldaera ugarietan nahiz bilakaera teknologiararen bidez, identitate zeinua eta soundmark geografikoa bihurtu arte.

Suitzan, bereziki ikerketa honen objektu den Ticinoko kantonamenduan, orografiaren konplexutasunak, urteen poderioz nazioartean erreferente bihurtu den burdinbidearen ingenieritza berezi eta aurreratu baten beharra eragin du.



“Trenbidearen zirkulazioari dagokionez, leku jakin batetik besterako bidai zerbitzua egin behar duen edonolako trakzio modu da tren. Edo aukeran, zerbitzuzko leku batetik abiatzen den eta linea oso batean garraio zerbitzua eskaintzen duen eta hura amaitu ondotik jatorrizko lekura itzultzen den trakzio modu oro da tren.» (Trenaren definizioa Regolamento Circolazione Treni-ren arabera).

Trena, bere definizio oinarrizkoenean, erraz identifikatu daitezken elementuekin osartzen den, baina aldiberean behin-behineko nahiz behin-betiko osotasun baten arabera antolatuta dagoen garraibide publikoa da. Asmakizun mekaniko soila izatetik urrun, bidaia, lerrozuzena, mapa osatzen duen objektu bat da. Trena (igarotako) denboran eta (trenbide sareko) espazioaren arabera, baina bereziki ikuspegi kulturaletik ulertuta, ihespuntu bat da, begitik urrun agertzerakoan soinuazko ihespuntu gisara ulertu daitekena. Nahitaez estatikoa izan behar duen begizko ihespuntuaren aldean, soinuazko ihespuntu gisara, abstraktoa, formarik gabekoa eta ez-lerrotua (ez zuzena) bihurtzen da tren. Ez du entzuteko leku jakin baten beharrik. Mugimenduan dagoen gorputza da, mugimenduan dagoen ihesa. Trenak behartuta jarraitzen duen trazatu lerrotua, sinbolikoa bihurtzen den espazio abstraktuaren kontra jartzen du. Badator eta badoa aldiberean. Soilik funikular bihurtzen denean eta ondorioz bertikaltasunaren eta zirkuitu ikaragarri mugatu baten preso, galtzen du bere dinamikotasuna.

Soinua eta entzumena abiapuntu gisa hartuz, egitasmo honek Ticino kantonamenduaren ezaugarri kultural eta geografikoak bere trenbide sarearen bidez ikertzea du helburu.




Bestalde, ariketa hau, transitoan doan, (etengabe aldatzen den) joanetorriko espazio batengan arreta jartzen duen geografia alorreko ikerketa kasu experimental gisara ere uler daiteke. Itxura batean, ximplea dirudien baina bertatik igarotzen diren pertsona, denbora eta lekuen arabera esanahi amaigabeak sortzeko gai den espazio baten inguruko ikerketa, azken finean.

Ikuspegi zientifikoa (kartografia, ingeniari, antropologia...), giza zientziak (filosofia, pedagogia, geografia...) eta artea (margolaritza, literatura, zinema, soinuen arteak...) nahasten dituen alor anitzeko egitasmo honek trenaren esanahiaren, bere errepresentazio kartografikoaren eta kultur adieraren inguruko hausnarketa proposatzen du. Ticinoko trenbide sarearen ezaugarri diren elementuen konplexutasunari forma emateko edo besterik gabe beraiek ulertzeko bilaketa ariketa bat da.

Ikerketaren emaitzak euskarri eta modu desberdinetan erakutsiko dira, paperezko argitalpen, hezkuntza artistikorako dokumentu, instalazio etabar... etorkizunerako ikerketa berrietarako hastapen bihurtu daiteken muga-espazio berri bat proposatuz.

"Il rumore lontano" Scuola universitaria professionale della Svizzera italiana (SUPSI) Dipartimento formazione e apprendimento (DFA) antolatutako eta Xabier Erkiziak eta Lorena Rocca garatutako egitasmoa da.

Geltoki nagusia: Liburua



Idatziak: Xabier Erkizia, Lorena Rocca, Hillel Schwartz, Franco Farinelli

124 orrialde, koloretan + audio CD


Diseinua: Miguel Ayesa, Sonia Ciriza

Hizkuntza: Italiara

Argitaratzailea: [SUPSI](#), [Libe edizioni](#), [audiolab](#)
[kargatu liburua PDF euskarrian](#) (soilik itazieraz)

Xabier Erkiziak Ticino kantonamenduan trenbide sarearen inguruan egindako ikerketaren emaitza da **“Il rumore lontano”**. Lorena Roccak komisariatutako egitasmo honen emaitza nagusi (baina ez bakar) gisara argia ikusi duen liburu honek, Franco Farinelli geografo italiarrak eta Hillel Schwartz historialari iparramerikarrak bereziki aukera hontarako idatzitako testuak biltzen ditu.

Zirkulazioan: Trena entzuten



1. "Centovallina. Stazione di Locarno" — Xabier Erkizia
2. "Centovallina. Stazione di Locarno Sant'Antonio" — Xabier Erkizia
3. "Centovallina. Passaggio a livello di Verscio" — Xabier Erkizia
4. "Stazione di Bellinzona" — Xabier Erkizia
5. "Centovallina. Stazione Funivia di Rasa" — Xabier Erkizia
6. "Vigezzina. Due Passaggi a livello in Re" — Xabier Erkizia
7. "Centovallina. in percorso" — Xabier Erkizia
8. "Ferrovia Lugano-Ponte Tresa. in percorso" — Xabier Erkizia
9. "Centovallina. Stazione di Locarno" — Xabier Erkizia
10. "Stazione di Chiasso" — Xabier Erkizia
11. "Centovallina. Galleria" — Xabier Erkizia
12. "Centovallina. Ponte di Intragna" — Xabier Erkizia
13. "Funicolare Locarno-Madonna del Sasso" — Xabier Erkizia
14. "Funicolare Lugano Cassarate-Monte Brè" — Xabier Erkizia
15. "Funicolare Lugano-Stazione FFS" — Xabier Erkizia
16. "TILO. Passo in Tenero" — Xabier Erkizia
17. "TILO. Classi e carri" — Xabier Erkizia
18. "Stazione di Cadenazzo" — Xabier Erkizia
19. "Stazione di Bellinzona" — Xabier Erkizia
20. "Stazione di Chiasso" — Xabier Erkizia
21. "Ferrovia Lugano-Ponte Tresa. Stazione Ferrovie Luganesi di Agno" — Xabier Erkizia
22. "Treni in miniatura. Sede AFC di Chiasso Sede ATAF di Minusio" — Xabier Erkizia
23. "Treno in miniatura. Sede ATAF di Minusio" — Xabier Erkizia
24. "Ferrovia Lugano-Ponte Tresa. Stazione di Ponte Tresa" — Xabier Erkizia
25. "Vigezzina. Stazione di Druogno" — Xabier Erkizia

Entzun audio pistak www.supsi.ch/go/rumore-lontano

Bidaiariak




Xabier Erkizia (Lesaka, 1975)

Musikari, kazetari, ekoizle eta soinu artista. Akzen 20 urteak soinu sorkuntzari eman dizkio, bereziki musikarengan, ikerketarengan, soinu diseinuarengan eta entzumenaren kulturarengan arreta jarritz. Horren emaitza dira bakarka nahiz elkarlanean osaturiko hainbat soinu-instalazio, diska, inprobisazio aske, rock experimental, zinema, antzerki eta dantzarako soinu banda, irratirako lan eta saiakera teoriko.



Lorena Rocca (Padova, 1966)

Geografoa, pedagogo eta giza geografian nahiz didaktikan irakasle Paduako Unibertsitatean eta SUPSIn. Bestek beste Brasilgo Caxias do Sul-go unibertsitatean edo Alemaniako Würzburgen geografiaren didaktika irakatsi du. Nazioarteko ikerketa taldeetan koordinatzaile lanak osatu ditu, halanola Eni Ernico Mattei fundazioaren baitan, beti ere partehartzeari eta hezkuntzari buruz. Ondorioz, hainbat nazioarteko argitalpenetan argitaratu ditu artikuloak.



Hillel Schwartz (Chicago, 1948)

Historialari kulturala, olerkaria eta itzultzailea. Historialari bezala, ezaguna da batik bat zarataren (*Making Noise: From Babel to the Big Bang, and Beyond*, 2011), errepliken (*The Culture of the Copy: Striking Likenesses, Unreasonable Facsimiles*, 1996 eta 2014) eta dieten (*Never Satisfied: A Cultural History of Diets, Fantasies, and Fat*, 1986) inguruan egin dituen ikerketengatik. Ikerlari independentea den arren, irakasle ibili da noizean behin historiako, literaturako, erlijio-ikasketetako, komunikazioko eta arte bisualetako departamentuetan; azkenekoz San Diegon, Kaliforniako Unibertsitatean.



Franco Farinelli (Ortona, 1948)

Geografoa, idazlea, Italiako geografoen elkartereko lehendakaria eta Bolognako unibertsitateko irakaslea. Ginebrako, Los Angeles-eko (UCLA), Berkeleyko (UCB), Parisko Sorbonako eta Estokolmoko Hiri plangintzaren institutuan klaseak eman ditu. *Le Globe*, *Rivista Geografica Italiana*, edo *Ecumene e Cahiers de Géographie du Quebec* aldizkarietako mahai editorialeko parte da. Geografia kritikoari buruzko hainbat liburu argitaratu ditu.